

GRAMATIKA-KATEGORIAK ETA EGLU ⁽¹⁾

Igone Zabala
(EHU)

1. SARRERA

Aditza, izena, adjektiboa eta preposizioa/postposizioa bezalako gramatika-kategoriek hizkuntzen hiztegiatan aurki ditzakegun osagaiak sailkatzeko bidea ematen digute. Alde batetik, hizkuntza bakoitzaren jokaera ulertzeko balio digute analisi-unitate hauek, hizkuntza baten gramatika azken batean hizkuntza horren osagaiak elkarren artean nola konbinatzen diren eta ezinezkoak diren konbinazioak zein diren finkatzean baitatza. Hainbat hizkuntzaren jokaera erkatzeko ere balio digute hauek, azken batean sail bereko osagaiak hizkuntza desberdinetan berdin edo desberdin jokatzeko ote duten aztertzean baitatza eraketa hori. Hizkuntza bakoitzean zein sailtako osagaiak dauden eta zein sailtako osagirik ez dagoen ikusteko ere balio digute, esate baterako, hizkuntza batzuetan adjektiboaren kategoriako osagaien bidez adierazten direnak beste hizkuntza batean aditzaren bidez edo preposizio-sintagmen bidez adierazten direla ikusteko. Azken batean, hizkuntza guztien oinarria litzatekeen Gramatika Unibertsala deritzon abstrakzio batera hurbiltzeko ere balio digute gramatika-kategoriek.

Hortaz, hizkuntza jakin baten gramatika deskribatu nahi dugunean, berebiziko garrantzia du zenbat hitz klase bereizten ditugun eta horiei zein izen ematen diegun finkatzeak. Terminologiaz haruntzago doan zerbait da kontu hau, gramatikari begiratzeko modua bera baldintzatzen baitu erabaki horrek.

Eremu praktikoago batera joanda, gramatika-kategoriek hiztegien erabil-tzaileei hiztegi-sarrerak nola erabili behar dituzten era laburrean jakinarazteko bidea ematen diete hiztegi-gileei. Hiztegi batean *irabazi* sarrerari buruzko informazioaren bila ari dena, hitz hori 'izena' zein 'aditza' izan daitekeela ikusten duenean, berehala jabetuko da (1a) eta (1b) bezalako testuinguruetan erabil dezakeela hitz hori.

(1) Lan honek Euskal Herriko Unibertsitateko dirulaguntza jaso du UPV 033.310-HA081/97 ikerkuntza-egitasmoaren barruan eta DGICYTrena PB96-0457-CO3-03 ikerkuntza-egitasmoaren barruan. Mila esker beren iruzkinengatik Juan Carlos Odriozolari, Xabier Artiagoitiari eta Asier Larrinagari. Halaber, eskerrak eman behar dizkiet Alang King, Beñat Oyharçabal eta Patxi Goenagari Etxarri-Aranatzen egindako Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen bileran lan hau aurkeztu nuenean piztu zuten eztabaidagatik.

- (1) a) Jonek sari bat *irabazi* du.
 b) Lantegi honetan *irabazi* handiak lortu dituzte.

Hiztegi-gileak, idazleak, zuzentzaileak eta, agian arauemaileak ere, gramatikariak hizkuntza bat deskribatzekotan idazten dituzten gramatiketan oinarritzen dira beren lanerako. Euskararen kasuan, jakina, EGLU gramatika da eredu modura erabili ohi dena. Egia da EGLU ez dela hizkuntzalariei zuzendutako gramatika eta alde horretatik ezin murgil daitekeela eztabaida teorikoe-tan eta ezin azter ditzakeela gaiak lan teorikoez aztertzen dituzten sakontasun-mailarekin. Hizkuntzaren jokaeraren deskripzio hutsa da baina edonola, deskripzio horren abiapuntuan dauden gramatika-kategorien zedarriztatzea bezalako aukera teorikoez berebiziko garrantzia dute deskripzio horren ondorioetarako.

Lan honetan, EGLU gramatikan hitzen kategoriak zedarriztatzeko eta horiei izen bat esleitzeko egindako zenbait aukerak hiztegien sarrerak gauzatzeko orduan eta (gramatika horren berri duten) hizkuntzaren erabiltzaileen artean zabaldu diren zenbait iritziren ganean izan dituzten eraginak aztertuko ditut.

Lehendabizi, gramatika-kategoria, sintaxi-funtzioa eta egitura-harremana adigaiak laburki definitzen saiatuko naiz. Bigarrenik, 'aditz izen' terminoaren erabilerari buruz mintzatuko naiz. Hirugarrenik, EGLUn egiten den 'adjektibo', 'izenondo' eta 'izenlagun' terminoen definizioak izanen ditut hizpide eta hiztegi-gileek definizio horiek nola ulertu dituzten edota nola erabili dituzten aztertuko dut. Laugarrenik, 'adberbio', 'adizlagun' eta 'aditzondo' terminoen erabilera aztertzeari ekingo diot. Eta azkenik, zenbait kasutan gertatzen diren moduzko adberbioen eta adjektiboen arteko muga finkatzeko zailtasunak age-rian uzten saiatuko naiz.

2. GRAMATIKA-KATEGORIAK, GRAMATIKA-FUNTZIOAK ETA EGITURAZKO HARREMANAK

Hizkuntzak deskribatzeko edota aztertzeako orduan, lau gramatika-kategoria nagusi erabili ohi dira: 'aditza', 'izena', 'adjektiboa' eta 'preposizioa/postposizioa'. Categoria nagusi horietaz gain, beste zenbait categoria aurki daitezke hizkuntza gehienetan: 'determinatzaileak', 'adberbioak', 'zenbatzaileak', 'konplementatzaileak' eta 'juntagailuak'.

Kategoria hauek hizkuntza gehienetan aurki daitezke, zenbait hizkuntzatan kategoriaren bat ez egotea edota categoria batek gainerako hizkuntzetan baino hiztegi-sarrera gehiago edo gutxiago izatea ere gerta badaiteke ere. Egia da, bestetik, semantika mailan pareagarriak diren unitateak categoria desberdinen bidez adieraz ditzaketela askotan hizkuntza desberdinek baina hizkuntzen artean dauden alde komunak eta desberdintasunak antzemateko funtsezkoa da edozein hizkuntzaren azterketa egiterakoan categoria batean sartzen diren hiz-

tegi-sarrerak beste hizkuntza batean kategoria berean sartzen direnekin erkatze modukoak izatea.

Kategoriak definitzeko erabili ohi diren irizpideak lau ataletan bil daitezke ⁽²⁾: fonologia-, morfologia-, semantika- eta sintaxi-irizpideak. Edonola, mota bateko baino gehiagoko irizpideak erabiltzen ditugu hitzak kategoria batean edo beste batean sartzeko orduan eta batzuetan mota bakoitzeko irizpideei ematen diegun garrantziaren arabera, mota jakin bateko sailkapena erdietsiko dugu.

Fonologia-irizpideak baliagarriak zaizkigu batzuetan hitzen kategoria erabakitzeko. Esate baterako, *zoro* edo *oso* hurrenez hurren adjektibo eta zenbaitzailearen kategoriakoak dira eta *zoratu* eta *osatu* aldiz, oinarri horietatik eratorritako aditzak. Hortaz, *zora dadin* edo *osa dezake* ikusten dugunean, arazorik gabe identifikatzen ditugu aditz-erroak eta era berean, badakigu *zoragarri* edo *osagarri* adjektiboak *zoratu* eta *osatu* aditzetatik eratorri direla eta ez *zoro* eta *oso* hitzetatik. Bestetik, azentua euskaraz kasu asko eta askotan zalantzarria bada ere, zenbaitetan baliagarria zaigu segida batean duguna hiztegi-sarrera bakarra eta ez sintagma dela jakiteko. Esate baterako *sudúr luzéa dauka* eta *gizon sudurlúzea da* segidak desberdinak dira: lehen adibidean IS osatzen dute *sudur* eta *luze* osagaiek eta bigarren segidan aldiz, *sudurluze* hiztegi-sarreratzat hartu behar dugun adjektibo elkartua da.

Morfologia-irizpideen artean sar daitezke hitzek flexio-atzizkiak hartzeko aukera izatea ala ez izatea, hartzen dituzten flexio-atzizkiak numeroari (eta zenbait hizkuntzatan generoari) edota kasuari dagozkionak izatea adota pertsonari, aspektuari, aldiari dagozkionak izatea. Adibidez, *ekarri* aditza da eta badakigu *dakar*, *zekarten*, *zekarkidaten*, *ekar dezakete*... bezalako aldaerak izan ditzakeela baina *liburu* aldiz, izena da eta *liburua*, *liburuak*, *liburuari*... bezalako aldaerak aurki ditzakegu. Hitz eratorriak direnean, mota bateko edo beste mota bateko atzizki eratorlea eramatea ere, hitza kategoria batean sartzeko irizpidea izan daiteke. Adibidez, badakigu *-tu* atzizkiak aditzak ematen dituela *-keta* atzizkiak, izenak eta *-kor* atzizkiak aldiz, adjektiboak. Hitz beregainak izatea edota hitz bati lotu behar zaizkion morfema lotuak (atzizkiak, aurrizkiak edo artizkiak) izatea ere har daiteke kategoriak mugatzeko orduan kontuan hartu ohi den morfologia-ezaugarritzat. Euskal ohiko determinatzailea esate baterako determinatzaile lotua da (*liburu*) baina erakusleak determinatzaile beregainak dira (*liburu hori*).

Semantikak ere eragina du hitzak kategoria batean edo beste batean sartzeko orduan. Izakiak adierazten dituzten hiztegi-sarrerak (*liburu*, *gizon*, *zuhaitz*...) 'izentzat' hartu ohi ditugu, ezaugarriak edo egoerak adierazten dituztenak adjektiboen sailean (*handi*, *haurdun*, *itsusi*...), ekintzak, jarduerak edo gertaerak adierazten dituzten hitzak aditz modura sailkatzen ditugu (*egin*, *dan-*

(2) Irizpide hauei buruz eta zehazkiago gaztelaniaren kategorien zedarriztatzeari buruz ikusi Bosque (1989).

tzatu, erori...) eta ekintza, jarduera edo gertaera horien inguruan dauden baldintzak adierazten dituztenak adberbioen artean (*atzo, ondo, berriro...*). Edonola, irizpide hauek ez dira behar bezain bereizgarriak gertatzen; izan ere, ekintzak, gertaerak, egoerak edo ezaugarriak adierazten dituzten izenak ere aurkitzen ditugu (*apurketa, istripu, beldur, edertasun...*) eta, era berean, izakiei erreferentzia egiten dieten adjektiboak (*darwindar, itsastar...*), egoerak edo kualitateak adierazten dituzten aditzak (*jakin, iraun...*), eta egoerak edo kualitateak adierazten dituzten adberbioak ere (*ondo, txarto...*).

Azkenik, sintaxi-irizpideak erabiltzen ditugu hiztegi-sarrereren kategoria erabakitzeke, alegia, osagai bakoitzak gainerako osagaiekin konbinatzeko dituen moduei begiratzen diegu. Edonola, badakigu perpaus batean ditugun osagaien artean harreman hierarkikoak daudela. Hau da, ezaguna da (2) perpausaren egitura ez dela (2a) adibidean ageri dena, (2b) adibidean ageri denaren antzeko zerbait baizik.

- (2) a) [Haur] [txikiak] [Jonen] [liburua] [dakar] [eskuan]
 b) [Haur [txikiak]] [[[Jonen] liburua] dakar] eskuan]

Perpaus horretan, bi osagai nagusi bereizten ditugu: *Haur txikiak* batetik eta *liburua dakar eskuan* bestetik. Lehenengoari 'subjektua' esaten diogu eta bigarrenari 'predikatua'.

Areago, predikatuaren barruan, *dakar* aditzaz gain ditugun osagaiek, hau da, *Jonen liburua* eta *eskuan*, harreman desberdina dute *dakar* aditzarekiko: haur txikiak ZER dakarren zehaztea ezinbestekoa da gauzatzen dugun perpausa onargarria izan dadin; liburua NON dakarren zehaztea aldiz, ez da ezinbestekoa. Subjektuari dagokionez, beste horrenbeste esan dezakegu, ezinbestekoa da edozein predikatuk subjektu bat izan behar baitu.

Aditza da azken batean zer-nolako perpausak izan ditzakegun erabakitzen duena: *ekarri* aditzaren ordez, *erori* aditza bagenu, esate baterako, subjektua litzateke ezinbesteko osagai bakarra eta *ekin* aditza bagenu, beharrezkoa litzateke ZERI osagai bat edukitzea. Hortaz, predikatuak eratzen dituzten hiztegi-sarrerak hiztegitik zehazturik daramate lagundu behar dituzten osagaiak zenbat eta nolakoak diren. Osagai hauei 'argumentuak' deritze eta subjektua, osagarri zuzena eta zeharkako osagarria bezalako etiketak argumentu horiek bete ditzaketan sintaxi-funtzioak dira. Lehenago esan dugunez, (2) adibidean *eskuan* osagaia ez da ezinbestekoa, egiten duena da aditzaren ekintza zehaztu. Honelako osagaiei 'modifikatzaileak' deritze.

Predikatu, argumentu edo modifikatzaile modura jokatzten duten osagaiak ez dira hiztegi-sarrerak ordea: hiztegietan *haur, txiki, liburu, ekarri* eta *esku* bezalako sarrerak aurkitzen ditugu eta ez *haur txikiak, Jonen liburua, dakar* eta *eskuan* bezalakoak. Eskuarki onarturik dagoena da hiztegi-sarreratzat hartzen ditugunek sintaxian 'sintagma' islatzen dituztela eta sintagma horien 'buruak' direla. Sintagma, buru modura duten kategoria berekoak dira. (2) adi-

bidean, esate baterako, badakigu *ekarri* aditza dela predikatu modura jokatzen duen aditz-sintagmaren burua, eta *haur* eta *liburu* izenak direla hurrenez hurren subjektu eta osagarri zuzen modura jokatzen duten sintagmen buruak.


Sintagma baten barruan ezinbestekotzat hartzen ditugun osagaiek sintagmaren buruarekiko 'osagarri' harremana dutela onartu ohi da eta aukerakoak diren osagaiei, 'adjuntu' esaten zaie. Hortaz, 'osagarri' eta 'adjuntu' terminoek egiturazko harremanak adierazten dituzte. (2) esaldian esate baterako *Jonen liburua* aditzaren osagarria dela esaten dugu baina (2c) adibidean parentesi artean jarri ditugunak adjuntuak direla onartzen dugu, aukerakoak baitira:

(2) c) Haur (txiki)ak (Jonen) liburua dakar (eskuan).

Edonola, sintagma desberdinen parte dira horiek eta, beraz, bakoitza sintagma batean adjuntaturik dagoela onartu behar dugu: *txiki* adjuntuak *haur* modifikatzen du, *Jonen* adjuntuak *liburu* eta *eskuan* adjuntuak *dakar* aditza. Euskaraz, 'izenlagun' deritze *Jonen* bezalako osagaiei eta 'adizlagun' *eskuan* bezalako osagaiei. Termino horiek adierazten dutena da osagai horiek kategoria jakin baten (hurrenez hurren, izenaren eta aditzaren) modifikatzaile modura jokatzen dutela.

Azkenik, (2) adibidean ageri diren zenbait osagai ez ditugu hiztegiaren aurkitzen, *-a*, *-k*, *-en* eta *-n* bezalako morfemez ari gara. Hauen funtzioa buruen, sintagmen eta abarren arteko harremanak ezartzea da. 'Determinatzailea' eta 'postposizioa' bezalako terminoak erabiltzen dira osagai horien gramatika-kategoriaren berri emateko. Mota honetako kategoriei ere, sintagma-egitura onartzen zaie analisi endozentrikoak erabiltzen dituzten esparru teorikoetan⁽³⁾. Esparru hauetan, beraz, *eskuan* bezalako sintagma baten analisia ondokoa litzateke:

(3)



(3) Gramatika Sortzailean determinatzaile-sintagmei ematen zaien analisi endozentrikoari buruzko informazioa nahi duenak Artiagoitiaren (1998) lana ikus dezake. Artiagoitiak analisi hori bikainki eta argi aurkeztu eta euskarari buruzko datuez hornitu duela, edozein euskal irakurlek erraz uler dezake.

Laburbilduz, hona hemen hizkuntzen gramatika egiten dugunean erabiltzen ditugun terminoen sailkapena:

- a) Gramatika-kategoriak: izena, adjektiboa, aditza, preposizioa/ postposizioa, adberbioa, determinatzailea, ...
- b) Sintaxi-funtzioa: Argumentua (subjektua, osagarri zuzena, zeharkako osagarria), predikatua, modifikatzailea (izenlaguna, adizlaguna,...).
- c) Egiturazko harremana: osagarria, adjunktua...

3. ADITZ IZENAK

Ondorengo (4) adibide-sortan *norberaren datu zehatzak* eta *norberak datuak ondo idaztea* segidek banaketa bera dute, biak dira *beharrezkoa izan* predikatuaren subjektuak baina, edonola, (4a) segidako burua (*datu*), izena da eta (4b) segidako burua (*idatzi*) aldiz, aditza. Bereizketa hau neurri handian buru horiek laguntzen dituzten osagaiei esker egin dezakegu. Aditza laguntzen duten osagaiek ergatiboa, absolutiboa eta datiboa bezalako kasu-atzizkiak daramatzate eta aditzondoan artean sartu ohi diren *ondo* bezalakoak ere eraman ditzakete. Izena laguntzen duten osagaiek, aldiz, *-ren* eta *-ko* genitiboak eraman ohi dituzte eta adjektiboak ere ager daitezke izen horiek laguntzen.

- (4) a) Oso beharrezkoak dira [norberaren datu zuzenak].
- b) Oso beharrezkoa da [norberak datuak ondo idaztea].

Morfologia beraren azpian bi gramatika-kategoria ezkuta daitezke. *Irabazi*, esate baterako, aditza da (5a) adibidean eta (5b) adibidean aldiz, izena. Hiztegietan zehazturik datozkigu sarrera honen bi kategoriak.

- (5) a) Jonek sari bat *irabazi* du.
- b) Lantegi honetan *irabazi* handiak atera dituzte.

Bada atzizki bat, buru modura izenak zein aditzak dituzten eraikuntzetan ager dakigukeena, *-tze* atzizkia alegia: ondoko bi adibideetan *jaiste* hitza ageri bada ere, (6a) adibidean aditza da eta (6b) adibidean aldiz, izena.

- (6) a) Espero izatekoa da [berehala diruaren prezioa nabariki *jaiste*a].
- b) Espero izatekoa da [diruaren prezioaren berehalako *jaiste* nabaria].

Kortxete arteko segida horiek banaketa bera badute ere, islatzen dituzten egiturak oso desberdinak dira: (6a) segidan osagai guztiak ohiko perpausetan bezala gauzatu dira eta (6b) segidan ageri direnak aldiz, ohiko izen-sintagmetan bezala. Erkatu adibide horiek buru modura inolako zalantzarik ez duten kategoriak dituzten (7)ko adibideekin:

- (7) a) Diruaren prezioa nabariki *jaitsi*ko dute berehala.
- b) Diruaren prezioaren berehalako *jaitsiera* nabaria.

Edonola, hona hemen EGLU-IIren 29.orrian 'aditz izenei' buruz irakur dezakeguna:


“Izen bihurturiko aditz hauek, edo izenaren itxura duten aditz hauek, bestelako izen guztiak bezala izen sintagma osatuz ager daitezke eta, horregatik, gainerakoekin gertatzen den bezalaxe, kasu markak ere hartu. Ergatiboan beti artikulua behar du aditz izenak: (23) *Hori irakurtzeak buruko mina ematen dit.*”

Euskaltzaindiak eskaintzen digun (23) perpausari begiratzen badiogu, *irakurtze* delakoak *-a* determinatzaileari eta ergatibo kasuari lotuta ageri bada ere, aditza dela dakigu osagarri zuzenaren itxuran oinarriturik (*hori*): (6a) eta (4b) adibideen kasu berean gaude. Hortaz, aditz hauek ez dira izen bihurtu, islatzen dituzten sintagma argi eta garbi aditz-sintagma baitira eta areago, aditz-sintagma horiek mendeko perpausak eratzen baitituzte. (6b) perpausaren ageri den *jaiste* hori aldiz, izena da, islatzen duen sintagma argi eta garbi izen-sintagma baita (*-ko* eta *-ren* daramaten modifikatzaileak eta adjektiboa daramatza). Hortaz, (6a) eta (6b) adibideetan ageri den *-tze* atzizkiaren azpian izaera desberdina duten bi atzizki ezkutaturik daude: (6b) adibidean duguna, atzizki eratorle izen-sortzailea da, *-keta*, *-era*, *-pen* atzizkiak bezala. (6a) adibidean duguna aldiz, flexio-atzizkia da eta izan ere, aspektu-atzizkitzat har dezakegu partizipioaren atzizkiak ordezka dezakegula kontuan hartuta (8a, b):

- (8) a) Pozgarria da [diruaren prezioa nabariki jaiste].
 b) Pozgarria da [diruaren prezioa nabariki jaitsi (izan)a].

Nola azal daiteke orduan (6)ko eraikuntza biek banaketa bera edukitzea? Hain zuzen ere *-a* determinatzailea da banaketa hori eragiten duena: bai ISaren kasuan bai eta perpausaren kasuan ere, egitura osoaren geruzarik kanpokoena buru modura *-a* determinatzailea duen determinatzaile-sintagma baita ⁽⁴⁾.

(9)



(4) Mota honetako eraikuntzei buruzko analisi zehatzagoa eta sakonagoa nahi duenak ondoko lanetara jo dezake: Artiagoitia (1994), Zabala (1995) eta Zabala eta Odriozola (1996).

Esan dugunez, hiztegieta zehazten direnak dira buru modura jokatzeko duten kategoriak: (9a) eraikuntzaren burua *jaiste* da eta horren kategoria 'izena' da, *jaitsiera* delakoaren kategoria 'izena' den bezala. (9b) eraikuntzaren burua aldiz, *jaitsi* aditza da eta beraz, hiztegiaren badugu aditz modura etiketatuturik. Aditz horrek testuinguru desberdinetan izan ditzakeen aldaerak ere, hots, flexio-atzizki desberdinak hartzen dituenean dituen itxura desberdinak, zehaztuta datozkigu Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an (*jaitsi*, *jaits*, *jaisten*). Informazio hau aditzaren sarreran bertan eskaintzen zaigu jakina, ez baitagokio kategoria- edota esangura-aldaketa bati, aditz berak aspektu-ñabardura desberdinak emateko eta sintaxi-testuinguru desberdinetan azaltzeko dituen flexio-atzizkiei baizik ⁽⁵⁾.

Edonola, Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an, aditz guztien ondoan *A + -tze* moduko hiztegi-sarrerara ematen zaigularik, ondoan "A aditzaren aditz izena" zehaztuta datorkigu. Zer esan nahi du baina esapide horrek? Hiztegi-sarrerara bat ezin izan daiteke batera izena eta aditza. Aditz kategoriako *jaitsi* hiztegi-sarrerara badugu hiztegiaren eta euskal hitzun guztiok dakigu aditz horren *jaiste* morfologia-aldaketa badagoela, aditz guztiek baitute morfologia-aldaketa hori. Hiztegiaren erabilzaileentzat oso baliagarria da, ordea, izen kategoriako *jaiste* hitzik ba ote dagoen eta horren esangura zein den, *jaitsiera* izenaren sinonimoa ote den e.a. jakitea.

-Tze atzizkia daramaten bi motatako sarrerak aurki ditzakegu Sarasolaren hiztegiaren: batetik, 'aditz izen' zehaztapena ez ezik, *iz.* zehaztapena daramatenak (*jaiste* esate baterako) eta bestetik, 'aditz izen' zehaztapena baizik ez daramatenak (*apurtze* esate baterako). Honek esan nahi duena da Sarasolak erabili duen corpusean ez duela aurkitu *apurtze* hitza izen modura erabilita eta izan ere, *Orotariko Euskal Hiztegi*an ere ez dago honelako hiztegi-sarrerarik. *Jaiste* aldiz, *jaitsi* aditzaren morfologia-aldaketa ez ezik, izena ere bada eta horrexegatik agertu behar du hiztegi-sarrerara modura.

jaiste, *jaitsi* ad.-aren aditz izena. // *iz.* (1696). *Nola agitu zen Espiritu Santuaren jaiste hura?*

jaitsiera. *iz.* (1977). *Jaistea. Jaitsiera gogorragoa gertatu zen igoera baino.*

(5) -Tze atzizkia daramaten eraikuntzen arazoa hemen deskribatu dudana baino korapilatsuagoa da. Izan ere, badira izen-sintagmatzat hartzerako eramatzen gaituzten ezaugarriak aditz-sintagmatzat hartzerako eramatzen gaituzten ezaugarriekin batera dituzten segidak: *Zure egunero berandu heltze hori parkaezina da.* (Zabala eta Odriozola, 1996); *Aitaren ikustera joango gara.* (EGLU-II: 30or) *Jesusen zerutik jaistea. Belarraren moztera joan da* (Euskaltzaindia, 1993: 230-231).

Erdibidean dauden mota honetako eraikuntzak gaztelaniako infinitiboaren kasuan eta ingelesaren gerundioaren kasuan ere aurkitzen dira: *Ese andarse por las ramas de Juan. Aquel continuo masticar chicle de los niños. John's smoking cigarettes surprised me.* Edonola, honelako eraikuntzen azterketaren gakoak izaten da buru modura jokatzeko duenaren kategoria finkatzea, ezin izan baitaiteke batera izena eta aditza. Zer esanik ez dago eraikuntza osoaren burua determinatzailea izateak eragina duela egitura hauen jokaera harrigarrian baina baita -tze atzizki bereziak ere (ikus Artiagoitia, 1994).

apurtze, *apurtu* ad.-aren aditz izena.

apurketa. iz. (*1905, 1977). Apurtzea.

Flexio-atzizkien eta eratorpen-atzizkien artean dagoen desberdintasun nabari bat, emankortasuna da hain zuzen ere, *-tze* flexio-atzizkia edozein aditzari lot dakioke eta hortaz, ez du zentzurik aditz guztien ondoan gaineratzeak, izen guztien ondoan mugatzaile edo datibo markadun aldaera gaineratzeak zentzurik ez duen bezala. Bestetik, espero daitekeena da *-tze* atzizki eratorleak erabateko emankortasuna ez izatea, *-keta*, *-pen* edo *-era* atzizki eratorleak erabateko emankortasuna ez duten bezala eta izan ere, ez dira horrenbeste iz. kategoria daramaten *-tze* atzizkidun hiztegi-sarrerak.

Euskaltzaindiak, 'aditz izen' terminoa bi gauzatarako erabiltzen du. Batetik, aditz-sarrera bati, flexio-atzizki desberdinak lotuz lortzen diren morfologia-aldaeretak bati izena emateko erabiltzen du. *Araukak* segidako *Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma* izeneko 85. arauan, esate baterako, 'aditz oina', 'partizipioa', 'etorkizunekoa' eta 'aditz izena' terminoak erabiltzen ditu Euskaltzaindiak, hurrenez hurren, *apur*, *apurtu*, *apurtuko* eta *apurtzen* bezalako morfologia-aldaerei erreferentzia egiteko. Termino hauek ez dituzte gramatika-kategoriak adierazten, 'aditza' izeneko gramatika-kategoriako hiztegi-sarrera orok dituen morfologia-aldaerak baizik eta beraz, gaztelaniaren gramatiketan erabiltzen diren 'participio', 'infinitivo' eta 'gerundio' terminoen parekoak dira.

Bestetik, *jaiste* eta *erortze* bezalakoek aditzen eta izenen arteko jokaera dutela adierazteko erabiltzen du Euskaltzaindiak ⁽⁶⁾ 'aditz izen' terminoa. Edozein modutan ere, 'aditz izen' terminoa beste zerbaiteko ere erabil liteke, aditzetik eratorritako izenak adierazteko alegia. Hau da, gaztelaniaz esate baterako 'nombre de verbal' izenaz adierazten den adigaiari erreferentzia egiteko erabil liteke. Komenigarria litzateke, orduan, 'aditz-izen' marradun idazkera, oso desberdina den beste erabileratik bereizteko. Esan gabe doa, *apurketa* eta *irabazi*, *jaiste* bezain 'aditz-izenak' lirakeela orduan, denak baitira (atzizki eratorle baten bidez) aditzetik eratorritako izenak:

(6) *Gramatika Laburrean* (1993: 231), EGLU-II gramatikan eskainiriko ikuspegia zuzendu du Euskaltzaindiak baina agian, gramatika honek ez du aurrekoek eduki duten oihartzuna eta hiztun gehienek aurreko ikuspegia bereganatu dute. Hona hemen *Gramatika Laburrean* esaten zai-guna:

"Aditz izenaz ari garelarik, jokatu gabeko perpaus baten aditzaz ari gara, aditz hori izen baten itxurarekin agertzen bazaigu ere. Ez ditugu hemen kontuan hartzen, hala ere, aditz izenaren itxura duten benetako izenak: (100) *Liburuaren hastean orri bat falta da...*

Hor, argi ikus daitekeenez, ez dira aditzak, izen garbiak baizik (*hasiera*, *sarrera* eta *fede* izenen balio bera baitute). Dena dela, aditz izenek ... duten izaera bikoitz honek arazo larriak sortzen ditu, ber denboran aditzen eta izenen ezaugarriak erakusten baitituzte horrelako formek...."

- (10) [jaitsi]_A + -tze → [jaiste]_I
 [apurtu]_A + -keta → [apurketa]_I
 [irabazi]_A + Ø → [irabazi]_I

Hiztegietan eskaintzen diren sarrerak korapilatuko lituzke honek eta errazena dirudi *jaiste* bezalako sarreretan 'izena' besterik ez zehazteak, aditz-izenak izenen barruko azpisail bat baino ez baitira eta izan ere, *hilgarri* edo *hauskor* bezalako sarreretan ere ez dugu aditz-adjektibo etiketa erabiltzen, nahiz eta adjektibo hauek ere aditzetik eratorzen diren. Edonola, hiztegietan ez du zentzurik 'aditz izen' zehaztapena daraman sarrerarik ipintzeak, aditz guztiek baitute *-tze* daraman morfologia-aldiera.

4. ADJEKTIBOAK, IZENONDOAK ETA IZENLAGUNAK

Euskaltzaindiak (EGLU-I: 241-248) izena laguntzen agertzen diren osagaiak 'adjektiboak' direla esaten digu eta horien artean bi azpimultzo bereizten ditu: 'izenondoak', izenaren eskuinaldean joan ohi direnak, eta 'izenlagunak', izenaren ezkerrean kokatzen direnak. Ondoko segidetan, esate baterako, *handi* eta *beldurgarri*, izenondoak dirateke, eta *lurrezko* eta *irakaslearen* aldiz, izenlagunak.

- (11) a) liburu *handia*
 b) gizon *beldurgarria*
 c) *lurrezko* ontzia
 d) *irakaslearen* liburua

Edonola, beste zerbait ere esaten digu Euskaltzaindiak, alegia, izenlagunak, izenaren ezkerrean agertzeaz gain *-ko* eta *-ren* atzizkiak daramatzatela. Izan ere, inori ez litzaioke bururatuko *lurrezko* edo *irakaslearen* bezalakoak hiztegi batean bilatzea, *handi* edo *beldurgarri* aldiz, hiztegi-sarrerak dira eta hiztegi guztietan aurkitzen ditugu. Honek agerian uzten diguna da *-ko* eta *-ren* atzizkiak ez direla *-garri* atzizkia bezalakoak: *-garri*, atzizki eratorlea da, eta *-ko* eta *-ren* aldiz, sintaxi-testuinguru jakin batean izenaren (edo postposizioaren) kategoriako hiztegi-sarrerei lotuta ageri zaizkigun atzizkiak dira, postposiziotzat hartu ohi direnak ⁽⁷⁾.

Hortaz, izenlagunak postposizio-sintagmatzat har daitezkeen sintaxi-islapien (konplexuak) dira eta Euskaltzaindiak 'izenondo' esaten dienak aldiz, oi-

(7) Bereziki korapilatsua da *-(r)en* atzizkia, DSek har dezaketen genitibo kasuaren agerpen morfologikoa eta beraz, absolutiboa, ergatiboa eta datiboa bezalako zerbait ote den ala benetako postposizioa ote den, hau da, inesiboa, elatiboa, e.a. bezalakoak ote den eztabaida baitaiteke. Esate baterako, lehenengo ikuspegiaren alde egin du Eguzkitzak (1993, 1997) eta bigarrenaren alde, Artiagoitiak (1990, 1992). Guk postposiziotzat hartuko ditugu bi atzizkiak, eztabaida errazteagatik. Beste ikuspegi bat aldarrikatu du Mitxelenak (1986), bai *-ren* eta bai *-ko* atzizki eratorletzat hartu baititu.

narrizko gramatika-kategoriak. Izenondoek eta izenlagunek duten ezaugarri komuna izena laguntzeko eginkizuna da baina ez gramatika-kategoria. Izena laguntzearen sintaxi-funtzio horretarako erabiltzen du Euskaltzaindiak ‘adjektibo’ terminoa, hain zuzen ere bestelako hizkuntzei buruz hitz egiten denean oinarritzko ‘gramatika-kategoria’ bat adierazteko erabiltzen dena.

Areago, hauxe esaten digu Euskaltzaindiak (EGLU-I: 242):

“Baina adjetiboa izen sintagmaren barnean ez ezik, predikatu osagarri modura ere ager daiteke: (507) (a) *Liburu hori ederra da benetan.* ... Hortaz, esan dezakegu adjetiboa bi lekutan ager daitekeela perpausean: izen sintagma baten barnean izen bati lagunduz, nahiz predikatuaren barruan, osagarri predikatiboa osatuz.”

Paragrafo honetan gramatikaren egileek ‘adjektibo’ terminoa erabiltzen badute ere, ez dirudi izenlagunak eta izenondoak barruan dituen kategoriari buruz ari direnik, *handi*, *eder* eta *beldurgarri* bezalako sarrerei buruz ari dira. Hortaz, uler genezakeena da ‘adjektiboek’ bi funtzio bete ditzaketela: izenaren modifikatzaileak edo predikatuak izan daitezke. Izan ere, badira predikatu funtzioa baino ezin bete dezaketen adjektiboak, hala nola, *sendakizun*. Horiei ere izenondo esan beharko al genieke? Nola izan dezake hitzunak jokaera hauen guztien berri hiztegi batera jotzen duenean? Hona hemen hiru hiztegitan ⁽⁸⁾ *handi*, *beldurgarri* eta *sendakizun* sarrerei egotzi zaien kategoria:

(12)

Hiztegi-sarrera	EEG	3000H	SEH
handi	izond.	izond.	izond.
beldurgarri	izond.	izond.	izond.
sendakizun	izond.	izond.	pred.

Hortaz, hiztegitile batzuek ‘izenondo’ terminoa hitzak bete ditzakeen funtzioak kontuan hartu gabe erabili dute eta Sarasolak aldiz, ‘izenaren modifikatzaile’ eta ‘predikatu’ modura joka dezaketen hitzetarako erabili du eta azken funtzio hori baizik ez dutenatarako, ‘predikatu’ etiketa erabili du.

Edonola, Euskaltzaindiaren sailkapenak badu beste arazo bat: izenaren modifikatzaileak sailkatzeko orduan izenarekiko kokapenean oinarritu denez, sailkatu gabe geratzen dira izenaren ezker zein eskuinaldean joan daitezkeen hiztegi-sarrerak. Izan ere, EGLU-I gramatikan ere (243, 244or.), ‘adjektibo’ terminoa erabili dute *-dun* eta *-tar* daramaten izenaren modifikatzaileez hitz egiteko. Ikus dezagun nola ulertu duten kontu hau hiztegitileek:

(8) Eskemetan erabiliko ditugun laburtzapenen esangura ondoko hau da:

EEG: *Elhuyar Euskara-Gaztelania, Gaztelania-Euskara Hiztegia.*

3000H: *Hiru Mila Hiztegia: euskara-gaztelania, gaztelania-euskara.* Adorez.

SEH: *Sarasolaren Euskal Hiztegia.*

Bibliografian ikus daitekeenez, hirurak dira 1996. urtean argitaraturiko hiztegiak.

(13)


Hiztegi-sarrera	EEG	3000H	SEH
europar dirudun oinarrizko	adj. adj. izlg.	izlg. eta izond. izlg. eta izond. izlg.	izlg. izond. izlg. (az- pisarrera)

Bi kokaguneak aintzat hartu dituzten hiztegi-gileek bi modutara islatu dute aukera bikoitza: *3.000 Hiztegiaren* egileek 'izenlagunak' eta 'izenondoak' dira zehaztu dute eta Elhuyarrek aldiz, 'adjektibo' etiketa hautatu du, hots, Euskaltzaindiaren arabera izenondoak eta izenlagunak biltzen dituen gainkategoria. Sarasolak aldiz, aintzat hartu du tradizio handieneko erabilera: izenaren eskui-nean tradizio handiagoa dutenei (*dirudun* bezalakoei) izenondo kategoria egotzi die eta izenaren ezker aldean tradizio handiagoa dutenei (*europar* bezalakoei) izenlagun kategoria. *Oinarrizko* bezalakoei denek egotzi diete 'izenlagun' kategoria, *-ko* atzizkia daramatelako. Edonola, Sarasolak ez du hiztegi-sarreratzat hartu, *oinarri* izenaren sarreraren barruan sartu du.

Laburbilduz, Euskaltzaindiaren sailkapena nahasgarria gertatzen da, gramatika-kategoriak, funtzioak eta banaketa bereizten ez baititu eta hori hiztegi-gileek zenbait sarrerari kategoria egotzeko orduan erakusten duten adostasunik ezean ikus daiteke. Hona hemen zenbait hausnarketa adigai horiek bereizten lagunduko digutenak:

a) 'Lurrezko' eta 'irakaslearen' bezalakoak sintagma-eraikuntzak dira, gramatika-kategoria bat baino gehiago biltzen dituztenak. Horrexegatik ez dira azaltzen hiztegiatan.

(14)



b) 'Oinarrizko' zalantzarria da. Hiztegi elebidunek hiztegi-sarreratzat hartu dute eta Sarasolak aldiz, *oinarri* izenaren azpisarrera modura sartu du.

Egia da gaztelaniaz adjektibo baten ordaina izateak eragin nabaria duela hiztegi elebidunetan hiztegi-sarreratzat hartzeko. Edonola, honen esangura ezin on-doriozta daiteke zuzenean osagaien esanguraren bilkuratik: “Besteren oinarri gertatzen dena; garrantzizkoena”. Hortaz, inoiz, (14) analisiaren antzeko egitura bazuen ere, gaur egun hiztegi-sarreratzat ere har genezake eta agian lexicizazio horretatik datorkio izenaren ezker zein eskuinaldean erraz agertzeko ahalmena.

Hiztegi-sarreratzat hartzeak postposizio-sintagma ez dela eta beraz, Euskaltzaindiaren terminologian izenlaguna ere ez dela onartzea dakar. Hortaz, bi aukera ditugu: (i) *oinarrizko* sarrera aintzat hartzea eta *adj.* kategoria egozteza edo (ii) *oinarri* izen kategoriako sarreraren barruan *oinarrizko* postposizio-sintagma berezia aipatzea.

c) Ikusi ditugun gainerako osagaiak (*handi*, *beldurgarri*, *eginkizun*, *europar* eta *dirudun*) hiztegi-sarreratzat hartu behar ditugu argi eta garbi. Gehienak izenaren modifikatzaileak zein predikatuak izan daitezke baina *sendakizun* bezalakoek ‘predikatu’ funtzioa baizik ezin bete dezakete. Izena lagun deza- ketenen artean, *handi* eta *beldurgarri* bezalakoak eskuinaldean kokatu behar dira ezinbestean eta *europar* eta *dirudun* bezalakoak, eskuin zein ezker aldean joan daitezke.

d) Bestetik, *handi*, *beldurgarri* eta *dirudun* izakiak nolakoak diren adierazten duten bitartean, *europar* bezalakoek izakiei erreferentzia egiten diete, kasu honetan Europa kontinenteari hain zuzen ere ⁽⁹⁾.

Hortaz, honelako proposamen bat argigarriagoa litzateke gramatika-kategoriari eta sintaxi-eginkizunei begira:

1. Sintaxian sortzen diren izenaren modifikatzaileak, *lurrezko* eta *irakaslearen* bezalakoak alegia, postposizio-sintagmak dira kategoriaren aldetik; edonola, ‘izenlagun’ terminoa ere erabil liteke horrek duen tradizioa kontuan hartuta. Hiztegietan ez dira agertzen, sintaxi-egiturak baitira. *Oinarrizko*, *benetako*, *ohiko*... bezalakoak ere postposizio-sintagmatzat hartuz gero, ez dira hiztegi-sarrerak izango.

2. ‘Adjektibo’ terminoa hobe litzateke, beste hizkuntzetan bezala, hiztegi- kategoria jakin batekin sortzen diren hitzak biltzeko erabiltzea ⁽¹⁰⁾. Edo-

(9) Adjektiboen motei buruz ikus Zabala (1997, 1999).

(10) Adjektibo esango diegun hauek guztiak sintaxi-erakuntzak diren izenlagunetatik be- reizteko erabil daitezkeen hurrenkeraren frogari buruz ikus Zabala (1999). Adjektiboek beti egon behar dute izenetik hurbilago izenlagunek baino eta horrexegatik jokatzen dute desberdin esan- guraren aldetik berdintsuak diren *bilbotar* eta *Bilboko* osagaiek. *Bilbotar* adjektiboa da, erreferen- tziakoa gainera, eta horrexegatik *dirudun* tasunezko adjektiboa baino hurbilago egon behar du izenetik. *Bilboko* aldiz, izenlaguna da eta urrunago egon behar du izenetik edozein adjektibok baino.

(i) *bilbotar jende diruduna*
jende *bilbotar diruduna*

nola, ez du inolako zentzurik sintaxi-eraikuntzak diren izenlagunak eta hiztegitik 'adjektibo' modura sortzen direnak biltzeko erabiltzea. Predikatu modura soilik joka dezaketen adjektiboak (*eginkizun* bezalakoak) zehazteko 'adjektibo predikatu' erabil liteke gainerakoek jokaera biak dituztela aintzat hartuta. 'Izenondo' etiketa eskuinean baizik ezin ager daitezkeenetarako erabil liteke; *handi* eta *beldurgarri* bezalakoei 'adjektibo izenondo' esan lekieke eta *dirudun* eta *europar* bezalakoei, 'adjektibo' inolako zehaztapenik gabe. *Oinarrizko* hiztegi-sarreratzat hartuz gero, 'adjektibo' kategoriakoa litzateke hau ere.

3. Banaketa semantikoari begira, 'erreferentziazko adjektiboak' (*euro-par*) eta 'tasunezko adjektiboak' edo 'adjektibo kalifikatzaileak' (*handi, beldurgarri, dirudun*, eta hiztegi-sarreratzat hartuz gero *oinarrizko* ere) bereiz gertatzen dira.

4. Izenaren modifikatzaile modura jokatzeko duten adjektiboak, azkenik, 'adjektibo izenlagun' esan lekieke eta beraz, 'adjektibo izenlagun' eta 'postposizio-sintagma izenlagun' bereiz litezke. Etiketa hauek ez lirateke hiztegiaren erabiliko: esan dugunez, izenlagun modura jokatzeko duten postposizio-sintagmak sintaxi-egiturak dira, hiztegiaren sekula ere azaltzen ez direnak eta izenlagun modura joka dezaketen adjektiboek predikatu modura ere joka dezakete eta beraz, hiztegiaren 'adjektibo' modura etorriko dira zehazturik; gehienez ere, 'adjektibo izenondo' zehaztapena egin liteke eskuinean baizik ezin ager daitezkeenak bereizteko.

5. ADBERBIOAK, ADIZLAGUNAK ETA ADITZONDOAK

EGLU-I gramatikaren (453or.) aditza laguntzen duten osagaien sailkapena egiten zaigu. Eginkizun hori duten osagai guztiak 'adberbio' izeneko gainkategoria biltzen ditu Euskaltzaindiak eta bi kategoria bereizi ditu: batetik, aditza laguntzeko deklinabide-marka bat behar duten osagaiei 'adizlagun' esaten die eta soil soilik inolako deklinabide-markarik gabe aditzari lagun diezaioketen osagaiei, 'aditzondo'.

dirudun bilbotar jendea

*bilbotar dirudun jendea

(ii) Bilboko dirudun jendea

Bilboko jende diruduna

*dirudun Bilboko jendea

Oinarrizko bezalakoek *-ko* daramaten gainerako izenlagunek baino hurbilago egon behar dute izenetik eta horrexegatik hartu ditu Zabalak (1999) adjektibotzat. Ikusi, bestetik, *oinarrizko* errazago joan daitekeela izenaren eskuinaldean *Bilboko* baino.

(iii) a) Bilboko oinarrizko azpiegitura

b) *Oinarrizko Bilboko azpiegitura


c) ??Oinarrizko azpiegitura Bilboko

d) Bilboko azpiegitura oinarrizkoa


Kasu honetan izenaren modifikatzaileen kasuan aipatu dugun arazo beraren aurrean gaude: inolako markarik gabe aditza lagun dezaketen osagaiak, kategoria jakin bati dagozkio eta hiztegieta aurki ditzakegun hiztegi-sarrerak dira, beste hizkuntzetan ‘adberbio’ izenaz ezagutzen direnak. ‘Adizlagun’ etiketak aldiz, funtzio bat adierazten du eta ez gramatika-kategoria bat. Izan ere, adizlagunak (sintaxian eratzen diren) ‘postposizio-sintagma’ dira. Areago, Euskaltzaindiak bi adizlagun-mota bereizten ditu: batetik, “izen-sintagma deklinatuaren bidezkoak (*zurekin, etxera, herritik*)” eta bestetik, “postposizioaren bidezkoak (*txostenari buruz, mendian barna, kaleetan zehar, argirik gabe etab.*)”. Biak dira postposizio bidez eraturikoak, gertatzen dena da euskaraz badirela atzizkiak diren postposizioak (deklinabide-atzizkiak) eta hitz beregainak diren postposizioak, osagarri modura mota jakin bateko postposizio-sintagma hautatzen dutenak ⁽¹¹⁾.

(15)

a)



b)



Hortaz, aditza laguntzen duten kategoriak biltzen dituen etiketa sintaxieginkizun bati dagokio eta beraz, ‘adizlagun’ izan liteke. Eginkizun hori duten osagaien artean bi kategoria daude: ‘postposizio-sintagma’ (konplexu)ak, hau da buru modura postposizio bat duten eta sintaxian eratzen diren osagaiak eta hiztegitik bertatik aditza laguntzearen eginkizun hori zehazturik daramaten hiztegi-sarrerak, horiei ‘adberbio’ esan diezaiekegu inguruko hizkuntzetan bezala,

(11) Gai hau Odriozolak (1999) garatu du (eskuizkribua).

edo 'aditzondo' euskal hitza erabil dezakegu horiek adierazteko. Ikus dezagun nola islatu diren aditza laguntzen duten hiztegi-sarrerak hiru hiztegitan.

(16)

	EEG	3.000 Hiztegia	SEH
atzo	adb.	adond.	adlg.
ondo	adb.	adond.	adlg.
zehar	postp.	iz., izond. (postposizio gisa)	adlg.
buruz	adb.	adlg.	adlg.
erruz	adb.	adond.	adlg.

Hasteko, inolako hiztegitan ez dituzte hartu hiztegi-sarreratzat *-tik* eta *-ra* bezalako atzizkiak. Honen arazoia izan daiteke hitz beregainak ez izatea. Edo nola, gaztelaniaren akademiaren hiztegian ageri diren *a* eta *de* bezalakoak 'preposizioak' diren bezala, euskarazko atzizki hauek 'postposizioak' dira kategoriaz ⁽¹²⁾.

Bestetik, argi eta garbi aditza laguntzeko betebeharrak duten eta hitzak diren bost hiztegi-sarrera hautatu ditut, hiztegitan zein kategoria egotzi zaien ikusteko asmotan. Lau hiztegi-sarrera horiek aditza lagun badezakete ere, oso joaera desberdina dute sintaxian. *Atzo*, *ondo* eta *erruz* bezalakoek ez dute inolako laguntzarik behar aditza modifikatzeko (17a, b), baina *zehar* eta *buruz* direlakoek aldiz, postposizio-sintagma bat eratu behar dute eginkizun hori betetzeko (17c). Areago, postposizio beregaina laguntzen duen postposizio-sintagma horrek mota jakin batekoa izan behar du ezinbestean (17d).

- (17) a) [Atzo] Jonek [ondo] egin zuen bere lana.
 b) Dirua [erruz] irabazi dute.
 c) [Lanari buruz] mintzatu zaigu [parkean zehar] paseatzen genuen bitartean.
 d) [*Lanean/*aren buruz] mintzatu zaigu [*parkearen/*ri zehar] paseatzen genuen bitartean.

Bestetik, postposizio beregainek eskuinean onartzen duten postposizio bakarra *-ko* da (18a, b, c), zenbait adberbiok bestelako postposizioak onartzen dituzten bitartean (18d, e). *Ondo* bezalako moduzko adberbioek, gainera, graduzioa ere onartzen dute (18f):

- (18) a) *Mendian zehar**retik** dator.
 b) Araban zehar**reko** bidaiak.
 c) liburuari buruz**ko** iritzia.
 d) Atzot**ik** ari da kontu honen inguruan hitz egiten.

(12) Ikus esate baterako Zabala (1993: 278, 279) eta Eguzkitza (1993, 1997).

- e) atzoko bidaia.
- f) Jonek [oso ondo] egin du bere lana.

Sarasolak bere hiztegiaren hitzaurrean bertan esaten du aditza laguntzen duten osagai guztiei ‘adizlagun’ “gramatika-kategoria” esleitu diela. Hona hemen *Euskal Hiztegiaren* sarrerako ‘Gramatika kategoriak’ izeneko atalean irakur daitekeena:

“...*Adizlagunak*. Hiztegi honen lehen prestaeran egiten zen *adizlagun/adberbio* bereizketa bazterrerara utzi dut, alferrekoa gertatu baitzait ezer argitzeko. Denak adizlagun (adlg.) gisa adierazi ditut...”

Edonola, hiru hiztegietakako bakoitzean, kategoria bat egotzi diete *atzo*, *ondo* eta *erruz* sarrerei, *adb.*, *adond.* eta *adlg.* kategoriak aurki baitaitezke. Lehenago esan bezala, ‘adizlagun’ etiketak funtzio bat adierazten du gramatika-kategoria bat baino areago. Hortaz, nazioartekoagoa den ‘adberbio’ edo euskaraz sorturiko ‘aditzondo’ terminoen artean hautatu beharko genuke. Edonola, ‘aditzondo’ hautatzeak euskaraz ‘adberbio’ baztertzea ekarri beharko luke ondorio modura ⁽¹³⁾.

Zehar eta *buruz* hiztegi-sarrerei begiratzen badiegu, askoz ere, nahaste handiagoa ikusten dugu, Elhuyar da ‘postposizio’ gramatika-kategoria aintzat hartu duen bakarra eta *zehar* hiztegi-sarrerari egotzi dio kategoria hori. Sarasolak, *-(e)n zehar* delakoaren ondoan *postp.* jartzen du baina ematen du segida osoari egotzi diola kategoria hori.

Bestetik, *3000 Hiztegiaren* egileek *zehar* hiztegi-sarrerari hainbat gramatika-kategoria egotz dakizkiokeela islatu dute hiztegian baina ‘postposizioa’ ez dute gramatika-kategoriatzat hartu oso garbi ez dagoen kategoria baten erabileratzat baizik. Hona hemen, nola gauzatu duten hiztegi-sarrera:

“**zehar**: 1 *iz.* costado; **zeharreko mina**: dolor de costado. 2 *iz.* ladera; **zehar hartatik dago tontorrerako bidea**: la senda para la cima va por esa ladera. 3 *izond.* llano, na; plano, na; **leku zeharra**: sitio plano 4 *izond.* horizontal; **hari zutak eta hari zeharrak**: hilos verticales e hilos horizontales. 5 (postposizio gisa **-n zehar**, **-tik zehar** formak erabiltzen dira) por, a través de; **kalean zehar**: a través de la calle.”

Hiztegi-sarrera honetan nahiko ondo deskribatu digute *zehar* horren erabilera. Edonola, “postposizio gisa” ageri den tokian (5 adieran hain zuzen) nahikoa litzateke *postp.* jartzea, *postposizioa*, *izena* eta *izenondoa* bezain gramatika-kategoria baita.

Buruz hiztegi-sarrera izan daiteke agian korapilatsuena, hiztegi-gileek itxuraz honen inguruan aurrekoetan baino adostasun handiagoa erakutsi badute ere: *adberbio* eta *adizlagun* kategoriak egotzi dizkiote. Edonola, kategoria hori ego-

(13) Kasu honetan, ez du zentzurik kokapenarekin zerikusia duen bereizketarik egiteak eta beraz, ez dago bi etiketa erabiltzerik.

tzi diotenean ez dira (17c) edo (19c) adibideetako erabileraz, (19a) adibideko erabileraz baizik.

- (19) a) Jonek [buruz] ikasi du ikasgaia.
 b) Jonek [ondo] ikasi du ikasgaia.
 c) Jon [lanari buruz] mintzatu zaigu.

(19a) adibidean *buruz* horrek duen erabilerak antz handiagoa du (19b) adibidean *ondo* duenarekiko, (19c) adibidean ageri den *-ri buruz* delakoarekiko baino. *Buruz* (19c) adibidean postposizioa da argi eta garbi: datiboa eskatzen dio bere osagarriari eta gainera, duen esangura ikasi egin behar dugu, hau da, esangura hori ez da *-ri + buru + -z* osagaien esangura elkartzetik lortzen. Hor-taz, hiztegian *postp.* kategoriako hiztegi-sarrera bat beharko litzateke, osagarriari *-ri* eskatzen diola eta esangura berezia duela zehaztuko lukeena. Hiru hiztegi-tan jaso dute *-ri buruz* delakoaren erabilera baina kategoria zehaztu gabe.

(19a) delako erabilera bi modutara azter liteke. Pentsa genezake egitura horretan [[[buru]_{IS} Ø]_{DS} -z]_{PS} sintaxi-egitura dugula eta orduan bi aukera genituzke: bata, hiztegian ez jasotzea eta bestea, *buru* (*iz.*) sarreran sartzea agertzen den testuinguruak eta hartzen duen esangura berezia zehaztuz. *Adlg.* etiketa esleitzeak ez luke zentzu handirik gramatika-kategoria ez baita.

Beste aukera bat litzateke *buruz* horrek lexikalizazio-prozesu berezia jasan duela eta horrekin batera kategoria ere aldatu zaiola ulertzea, hau da, hiztunek *buru + z* zatien analisisa egiten ez dutela eta *ondo* erabiltzen dutenean adberbio-kategoriako hiztegi-sarrera bat hautatzen ari diren bezala, *buruz* hautatzen dutenean ere 'adberbio' kategoriako hiztegi-sarrera bat hautatzen ari direla ulertzea. Orduan, ulergarria litzateke hiztegian *buruz* agertzea baina ez *eskuz* edo *autobusez*. Horixe da hain zuzen ere, *Elhuyar* hiztegian ikus daitekeena: *buruz* hiztegi-sarrera da eta *adb.* kategoria egotzi diote baina *eskuz* ez da hiztegi-sarrera, *esku* izen kategoriako sarreraren erabileren artean ageri da, izen horrek ematen duen sintaxi-egitura berezizat hartuta. Edonola, lexikalizazio hori ez da horren garbia; izan ere, *eskuz* eta (19a) adibideko *buruz* berdin isla litezke hiztegi-tan, alegia, *esku* eta *buru* hiztegi-sarreraren erabilera berezi gisa.

Buruz hori *buru* izenaren erabilera berezi modura islatzeko egokitasuna ere nabariagoa da antzekoa den *erruz* sarrerarekin erkatzen badugu: kasu honetan *erruz* hitzaren esangura argi eta garbi ikasi behar dugu hiztunok eta ezin ondoriozta dezakegu *erru + -z* segidako osagaien esangura elkartzetik. Beraz, *adb.* kategoriako hiztegi-sarrera baten aurrean gaude argi eta garbi.

6. MODUZKO ADBERBIOAK ETA ADJEKTIBOAK

Bada esparru bat, zeinean nahasirik agertzen baitzaizkigu moduzko adberbioak eta adjektiboak; izan ere, batzuetan zail samarra gertatzen zaigu erai-

kuntza jakin batean kategoría batek predikatu modura ala adizlagun modura jokatzeko duen ikuste⁽¹⁴⁾. *Lodi* eta *urduri* bezalako hiztegi-sarrerak ‘adjektiboak’ dira eta kategoría honen bi erabilera nagusiak azaltzen dituzte, izenaren modifikatzaileak, zehazkiago izenondoak (20a), edo predikatuak izan baitaitezke (20b, c, e).

- (20) a) haur {*lodial urduría*}.
 b) Haur hau {*lodial urduría*} da.
 c) Haur hau {*lodi(a)/ urduri*} dago.
 d) *Haur hau *urduria* dago.
 e) Haur hau {*lodi/ urduri*} da.

Edonola, bi motatako predikatuak era ditzakete adjektibo hauek: izakien ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten ‘izaki mailako predikatuak’ (20b) edo behin-behineko ezaugarriak adierazten dituzten ‘egoera mailako predikatuak’ (20c, e)⁽¹⁵⁾. ‘Izaki mailako predikatuak’ *izan* aditzarekin gauzatzen dira euskalki guztietan eta *-a(k)* mugatzailea azaltzen dute (20b). ‘Egoera mailako predikatuak’ aldiz, *egon* aditzarekin gauzatzen dira lotura-aditz hau duten euskalkietan eta gehienetan ez dute mugatzaile agertzen (20c). Edonola, zenbait adjektibori dagokienez (*lodi* adjektiboaren kasuan esate baterako) eta zenbait euskalkitan mugatzailea aukeran badago ere, zenbait adjektiboren kasuan, ezinezkoa da mugatzailea ‘egoera mailako predikatuak’ kasuan (20d). Azkenik, *izan* lotura-aditza baino ez duten euskalkietan ‘egoera mailako predikatuak’ bereizten dituen ezaugarri bakarra mugatzaile eza da (20e).

Edonola, predikatuak aditzaren osagarriak ez ezik, adjuntuak ere izan daitezke. Orduan, zail samar gerta dakiguke beti ere adjuntuak diren aditzaren modifikatzaileetatik bereiztea. (21) adibide-sortan, esate baterako, bai *oso urduri* eta bai *oinetz* adjuntuak dira; izan ere, arazorik gabe isil daitezke funtsezko esangura-aldaketarik edo gramatikaltasun ezaririk eragin gabe. Edonola, *oso lodia* haurri buruz predikatzen da eta *oinetz* modifikatzaileak aldiz, itzultzearen ekintzaren modua adierazten du. Bestetik, ‘egoera mailako predikatuak’ mugatzaile gabe agertu ohi zaizkigu euskaraz. Hortaz, adberbioak eta adjektiboak bereizteko erabil litekeen ezaugarri bat, mugatzailea hartzeko aukera alegia, erabilezin bihurtzen zaigu kasu honetan⁽¹⁶⁾.

- (21) a) Haurra (*oso urduri*) itzuli zen udalekueetatik.

(14) Gai honetaz ikus Zabala eta Odriozola (1994).

(15) Predikatuak buruz ikus Zabala (1993) eta Artiagoitia (1997).

(16) Gaztelaniaz, esate baterako, berebiziko garrantzia du komunztadurak adberbioak eta adjektiboak bereizteko (Hernanz eta Brucart, 1987: 227):

- (i) a) El niño duerme tranquilo.
 b) Las niñas duermen tranquilas. → adj.
 (ii) a) El disco suena horrible.
 b) *Los discos suenan horribles. → adb.
 (iii) a) Juan habló claro.
 b) *Las mujeres hablaron claras. → adb.

b) Haurra (*oinez*) itzuli zen udalekueetatik.

Predikatu adjunktua, hots, 'bigarren mailako predikatuak' hiru motatakoak izan daitezke: batetik, perpausaren subjektuari buruz predikatzen direnak ditugu (22a) eta bestetik, objektuari buruz predikatzen direnak (22b, c); bestalde, objektuari zuzendutakoen artean, 'predikatu deskribatzaileak' esaten zaie objektua aditzaren ekintza pairatzen duenean dagoen egoera adierazten dutenei (22b) eta 'ondoriozko predikatuak' deritze objektuak aditzaren ekintzaren eraginez erdiesten duen egoera adierazten dutenei (22c) ⁽¹⁷⁾.

- (22) a) Peruk_i kafea lasai_i hartu du.
 b) Peruk kafea_i hotz_i hartzen du.
 c) Peruk kafea_i gogor_i prestatzen du.

Arazoa korapilatu egiten zaigu, argi eta garbi 'adberbiotzat' hartzen ditugun zenbait hiztegi-sarrera ere predikatu modura erabil ditzakegulako ⁽¹⁸⁾:

- (23) a) Nire laguna *hala* da.
 b) Lagunak *ondo* daude.

Izan ere, (24) bezalako perpaus bat anbiguoia izan daiteke, *honela* adberbioak aditzaren ekintza modifika baitezake edo bestela, ekintzaren partehartzaileetako bati buruz predika baitaiteke ⁽¹⁹⁾.

- (24) Gorpua *honela* aurkitu zuten.
 (i) 'Gorpua hau eta hau eginez aurkitu zuten'. → aditzaren ekintza modifikatzen du.
 (ii) 'Gorpua honela kokaturik zegoen aurkitu zutenean'. → predikatua da.

Badira EGLU-I gramatikak 'aditzondotzat' hartzen dituen zenbait hiztegi-sarrera predikatu funtzioa baizik ezin bete dezaketena, alegia, *isilik*, *onik*, *bakarrik*, *zutik*, *pozik*, *biluzik*, *hutsik*. Horietako batzuek *-ik* bukaera dutenean 'egoera mailako predikatuak' baizik ez dituzte ematen baina badituzte muga-tzailea hartzen dutenean 'izaki mailako' predikatuak eratzen dituzten edota izena modifika dezaketen ordainak.

(17) Adibide hauetan ageri diren azpiindizeek predikatuaren eta dagokion argumentuaren arteko lotura adierazten dute. (22b) adibidean ulertzen duguna da kafea hotz dagoela Peruk hartzen duenean eta (22c) adibidean aldiz, Peruk hala prestatzearen ondorioz dagoela gogor kafea. Subjektuari zuzendutako predikatuak beti dira deskribatzaileen motakoak; hortaz, (22a) adibideak esan nahi duena da Peru lasai zegoela kafea hartzen zuen bitartean.

(18) Gaztelaniaz ere, badira predikatu modura joka dezaketen adberbioak. Ikus Bosque (1989):

- (i) a) Juan está estupendamente.
 b) *Juan está lentamente.

(19) Ikus daitekeenez, irakurketa biak izan litezke *Nola aurkitu dute gorpua?* galderaren erantzuna eta beraz, galdera horrek ez du balio moduzko adberbioak bestelako kategorietatik bereizteko. Aurrerago ikus daitekeen bezala, EGLU-I gramatikaren galdera honen froga erabiltzen dute *zintzo jokatu* bezalako segidetan duguna adberbioa dela agerian uztearren.

- (25) a) Jon orain {*isilik /isil*} dago baina ez da inola ere haur *isila*.
 b) Haurra oso *alaia* da, beti egoten da *pozik*.
 c) Haurra {*biluziki/ biluzi/ biluz*} dago.
 d) Ezpata *biluzia* eskuan hartuta. (SEH)
 e) Behartsu *biluz*, gose, hotzak igaro bat. (SEH)

Isila/isil; isilik hiztegi-sarrera berak izaki mailako eta egoera mailako predikatuak gauzatzeko dituen moduak direla dirudi. *Pozik* hiztegi-sarrerak aldiz, egoera mailako predikatuak baizik erazten ez dituela dirudi, pareko izaki mailako predikatuak eratzeko *alai* hiztegi-sarrera hautatu behar da ezinbestean ⁽²⁰⁾. Azkenik, *biluzik* sarrerak egoera mailako predikatuak baizik ez ditu erazten eta ez dago 'izaki mailako predikatuak' erazten dituen pareko hiztegi-sarrerarik; badaude, ordea, 'egoera mailako predikatuak' erazteaz gain (25c) izena lagun dezaketen aldaerak (25d,c), *biluzi, biluz* alegia.

Hortaz, *isilik, pozik* eta *biluzik* bezalako gramatika-kategoria erabakitze-ko orduan, morfologian oinarritu gaitzek eta, mugatzailerik sekula ere hartzen ez dutenez, 'adberbio' kategoria egotz diezaiekegu edo predikatuak erazten dituztela eta aditza inoiz ere modifikatzen ez dutela kontuan hartuta, 'adjektibotzat' har ditzakegu. Gehienez ere, *eginkizun* sarreran bezala, 'adjektibo predikatu' zehaztapena gainera diezaiekegu izena inoiz ere laguntzen ez duten adjektiboak direla agerian uzteko. Hona hemen aztertutako hiztegi-sarreei orain arte erabili ditugun hiru hiztegietan egotzi zaien kategoria.

(26)	EEG	3.000 Hiztegia	SEH
urduri	izond...adb.	izond.	izond... (adlg. gisa)
lodi	izond...adb.	izond...adond.	izond... (adlg. gisa)
isilik	adb.	adond.	adlg.
pozik	adb.	adond.	adlg.
biluzik	adb.	adlg.	adlg.

Hasteko, hiztegien arteko ezadostasun handia egon da hauei kategoria egotzeko orduan, hiztegi bakoitzak termino bat erabili baitu (adb., adond., adlg.). Termino horien artean ezegokiena deritzogu 'adizlagun' erabiltzeari: lehenago ikusi dugunez, funtzio bat adierazten du kategoria bat baino areago. 'Adberbio', nazioartekoa da eta 'aditzondo' euskararako asmatu-termino berezia da baina, kategoria bera adieraziko lukete biek. Edonola, 'izenondo' terminoari erabilera murrizten bazaio, bere zentzuaren zati bat galtzen du 'aditzondo' terminoak eta agian egokiagoa izan liteke 'adberbio' erabiltzea ⁽²¹⁾.

(20) Era berean, *haurra poz da* edo *haurra pozak dago* esan daiteke baina 'egoera-mailako predikatuak' dira hauek ere.

(21) Aditza modifikatzen duten hiztegi-sarrerak ez ezik, perpaus osoari dagozkionak edota adjektiboak eta beste adberbio batzuk kuantifikatzen dituztenak ere kategoria berean sartu nahi ba-

Bigarrenik, *lodi* eta *urduri* hiztegi-sarrerei *izond.* kategorია ez ezik, *adb.* edo *adlg.* kategorია ere egotzi diete. *Lodi* sarreran, *elurra lodi da, negar egin zuen lodi* eta *graziaren hazia lodi hedatzeko* bezalako erabileretan aditza modifikatzen duen kategorია dugula esan dezakegu eta beraz, egoki deritzogu *adb.* kategorია egotzeari. *Urduri* sarreran aldiz, *urduri jarri nau* eta *urduri hitz egi ten du* bezalako esaldietan duguna oraindik ere adjektibo predikatua dela azpimarratu behar dugu. Hortaz, *adb.* kategoriak ez du zentzurik.

Hirugarrenik, *pozik*, *isilik* eta *biluzik* bezalako hiztegi-sarrerek, ez dute inoiz aditza modifikatzen, predikatuak eratzen baitituzte beti. Predikatuarena ez da adberbioen ohiko funtzioa eta adberbiotzat hartu gabe agian 'adjektibo (edo izen) predikatutzat' har litezke hauek lehenago esan dugun bezala. Aukera bat litzateke *poz*, *biluz*, *isil*, ... bezalako sarreretan *pozik*, *biluzik*, *isilik dago* bezalako predikatu-erabilerak gaineratzea eta aparteko sarrerarik ez egotea. Izan ere, *poz da/dago* parekagarria da *pozik da/dago* eta *pozak dago* eraikuntzekin eta besterik gabe predikatu hori gauzatzeko aukeran ditugun moduak baino ez lirateke izango. Era berean, *beldur da*, *berdurrik dago* eta *beldurrak dago* erabilerak ere *beldur* hiztegi-sarreran sar litezke.

Eñonola, badira EGLU-I gramatikaren arabera (465.or.), inolako marka berezirik gabe adjektibo zein adberbio modura joka dezaketen hiztegi-sarrerak.

"... Badira, ordea, bestelako adberbializatzte bide batzuk ere. Zenbaitetan izenondoa inolako atzizkirik gabe, ez mugatzaile ez kasu marka, aditzondo gisa erabiltzen da bestelako adberbioen zereginetan. Testuinguru soilak agintzen du aldaketa hori, beste inolako markarik gabe:

- (282) (a) Argi mintzatu zaigu
adl:adb
(b) «Gogor ari da»
adl:adb
(Izeta, 75)
(c) «Zorrotz jokatu bearra zeukaten»
adl:adb
(Garmendia, 32)

Esaldi horietan «argi», «gogor» eta «zorrotz» nola galdekariari erantzuten diote eta «ondo», «ederki» edo beste moduzko adberbioek bete dezaketen lekua betetzen dute. Hona, nahi izanez gero, horrelako erabilera ager dezaketen izenondoen zerrenda laburra:

ALFER: alfer bizi
APAL: apal etorri

ditugu, egokiago dirudi horren gardena ez den 'adberbio' terminoak. Esate baterako, egokiago dirudi 'perpaus-adberbioez' hitz egiteak 'perpaus-aditzondoez' hitz egiteak baino. Zer esanik ez, adjektiboa modifikatzen duten adberbioez hitz egiteak egokiago dirudi adjektiboa modifikatzen duten aditzondoez hitz egiteak baino. Azkenik, badira predikatuak ere era ditzaketen eta beraz zenbaitetan aditza laguntzen ez duten adberbioak.

ARGI: argi esan
 ARIN: arin ibili
 BIKAIN: bikain jokatu
 EROSO: eroso ibili
 ERRAZ: erraz egin
 GARBI: garbi mintzatu
 JATOR: jator jokatu
 MAKUR: makur atera
 ZINTZO: zintzo ibili
 ZUZEN: zuzen jokatu
 e.a.: ...”

Sarasola are kategorikoagoa da *Euskal Hiztegiaren* sarreran:

“Bestalde, jakina da edozein adjektibo adizlagun bezala erabil daitekeela euskaraz. Ez legoke, hortaz, *izond.* laburduraren ondoan *adlg.* jarri beharrik. Hala ere, adizlagun gisako erabilera maiz edo nabarmen agertzen den kasuetan aditzera eman dut erabilera hori...”

Hasteko, moduzko adberbioek nola galdekariari erantzuten diote baina galdera horri erantzuten dioten guztiak ez dira moduzko adberbioak, ‘egoera-mailako predikatuek’ ere erantzuten diote galdera horri.

(27) Nola dago Mikel?

lodi, zahar, urduri, lasai, pozik, zutik, harrituta, ondo,...

Bestetik, mugatzailerik gabe erabiltzeak ez du esan nahi *adj.* kategoriako hiztegi-sarrera bati kategorია aldatu diogunik. Izan ere, ‘egoera mailako predikatuen’ ezaugarrietako bat da mugatzailerik gabe azaltzea: (28a) adibideetan Mikelen ezaugarri iraunkorrek adierazi ditugu eta horrexegatik daramate mugatzailea izen eta adjektibo kategorietako ‘izaki mailako predikatu’ horiek; gainerako adibideetan aldiz, ‘egoera mailako predikatuak’ ditugu eta horrexegatik gertatzen da ezinezkoa mugatzailea. Edonola, (28b, c, d) adibideetan ageri diren *irakasle*, *zuzendari* eta *artzain* adibide horietan ere ‘izentzat’ hartzen ditugun bezala, ez dago inolako arrazoirik (28e) adibideetan ageri den *lasai* adjektibotzat ez hartzeko, adjektiboen ohikoa den betebeharra baitu, predikatuarena alegia.

(28) a) Mikel {artzaina/irakaslea/zuzendaria/ lasaia} da.

b) Mikel irakasle dago unibertsitatean.

c) Mikel Ameriketara artzain joan zen.

d) Mikel zuzendari izendatu dute.

e) Mikel lasai {dago/ etorri da/ mintzatu da}.

Begira diezaiegun berriro hiztegiei, sarrera hauetako egotzi dieten kategoría ikusteko (ikus 29 eskema). Izenak diren hiztegi-sarreretan hiztegiek ez dute bestelako kategoriarik aipatu eta izan ere, (28) sortako predikatu-erabilera berezia ez dute kontuan hartu. Erabiltzaileei lagungarria gertatuko litzaieke, edonola, lanbideak edo karguak adierazten dituzten izen horiek *artzain joan* eta

irakasle egon bezalako predikatu-erabilera bereziak dituztela jakitea eta agian interesgarria litzateke hiztegietan horien adibideak eskaintzea. *Lasai* sarrerari aldiz, *adlg.* kategoria ere egotzi dio Sarasolak eta *Elhuyar* hiztegian *relajadamente* bezalako ordainak egotzi dizkiote; edonola, honek ez du esan nahi hiztegi honetan euskaraz *adb.* kategoria egotzen diotenik. Ikusi dugun bezala, ez dirudi *lasai* sarrerari ere *izond.* kategoriaz gain besteren bat egotzi behar zaionik.

(29)	EEG	3.000 Hiztegia	SEH
lasai	izond... ...relajadamente	izond.	izond...adlg.
artzain	iz.	iz.	iz.
irakasle	iz.	iz.	iz.
zuzendari	iz.	iz.	iz.

Euskaltzaindiak eskainiriko zerrenda horretan badira batzuk argi eta garbi predikatu funtzioa betetzen dutenak; hortaz, ez dago arrazoirik 'aditzondo' edota 'adberbio' bihurtzen direla esateko: *alfer bizi, apal etorri, eroso ibili, makur atera...*

- (30) a) Peru alfer bizi izan da azken urte hauetan.
= Peru alfer egon da azken urte hauetan gure artean bizi izan den bitartean.
- b) Jon apal etorri da guregana.
= Jon apal zegoen guregana etorri denean.
- c) Ane eroso ibili da gure artean.
= Ane eroso zegoen gure artean ibili den bitartean.
- d) Peru makur atera da arazo horretatik.
= Peru makur zegoen arazo horretatik atera zenean.

Edonola, mota honetako eraikuntzak sor ditzaketen adjektiboak izakien behin-behineko ezaugarriak adieraz ditzaketenak baizik ez dira, hau da, 'egoera mailako predikatuak' sor ditzaketenak. Hortaz, Sarasolak esaten duenaren kontra, honelako testuinguruetan ezin aurki dezakegu edozein adjektibo; esate baterako, nekez aurkituko dugu 'izaki mailako predikatuak' baizik ezin eman ditzakeen *handi* bezalako adjektiborik.

- (31) a) Sagar hauek {handiak/merkeak/ berdeak} dira.
b) Sagarrak {*handi/ merke/ berde} daude.
c) Sagarrak {*handi/ merke/ berde} erosi ditugu.

'Ondoriozko predikatuak' bereziak dira alde honetik; izan ere, euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, esapideak eratzen dituzte eta harreman estua dago aditzaren eta izenki-predikatuaren artean. Ondoko adibideetan ditugun *la-*

bur, *zuri* eta *txiki-txiki* predikatuek zalantzarik gabe, *moztu* edo *margotu* ondoren hurrenez hurren *ilea*, *etxea* eta *tipula* nola geratzen diren adierazten dituzte eta beraz, oraindik ere adjektibotzat har ditzakegu:

- (32) a) *Ilea* {zikin/*labur/*kizkur} dago.
 b) *Ilea* {zikin/labur/*kizkur} moztu diote.
- (33) a) *Etxea* {zikin/apurtuta/*zuri} dago.
 b) *Etxea* {zikin/*apurtuta/zuri} margotu dute.
- (34) a) **Tipula txiki* dago.
 b) *Tipula txiki-txiki* moztu behar da.

Badira antzeko esapideak eratzen dituzten zenbait 'adjektibo' eta zenbait aditz. Hasteko, *egon* aditza dugu zalantzarik gabe predikatuak eskatzen dituztenetako. (35a) adibidean *zer egin behar dugun* perpausari buruz predikatzen dira *garbi* eta *argi*, (35b) adibidean aldiz, subjektuari buruz predikatzen dira *zuzen* eta *oker*.

- (35) a) {Garbi/argi} dago zer egin behar dugun.
 b) {Zuzen/oker} zaude.

Subjektuari buruzko predikatuak sartzen dizkigute era berean, *ibili* eta *jokatu* aditzek:

- (36) a) {Zintzo/azkar/argi} ibili dira.
 b) {Zintzo/azkar/garbi/zuzen/oker/zorrotz/bikain/makur} jokatu dute.

Era berean, *bete*, *egin*, *mintzatu*, *hitz egin* aditzak ditugu, izenari zuzendutako predikatuak onar ditzaketanak:

- (37) a) *Agindua* {zintzo/zorrotz} bete dute.
 b) *Lana* {zintzo/zorrotz} egin dute.
 c) {Argi/garbi/ zintzo/zorrotz/bikain/zuzen/oker/makur/apal} {mintzatu zaigu/ hitz egin digu}.

Zailagoa da subjektuari edo objektuari zuzendutako predikatuak ikustea (38)ko esapideetan. Izan ere, *erraz* ez da bateragarria subjektuari zuzendutako predikatuak hartu ohi dituzten *egon* eta *ibili* aditzekin (38b) eta gainera, *lana* erraz egiteak ez du esan nahi *lana* erraza denik (38c). Hortaz, *erraz* aditzaren ekintzari dagokion modifikatzailea, hots, adberbioa dela dirudi. *Azkar* sarre-raren kasuan, posible da *azkar ibili* esapidea (38d) baina kasu honetan ere, *lana* azkar egiteak esan nahi duena da laster bukatzea eta ez ezinbestean azkar aritzea (38e). Ondorioz, bai *erraz* bai eta *azkar* sarreerek ere, *adj.* kategoria ez ezik, *adb.* kategoria ere azaldu beharko lukete hiztegietan (38a) bezalako adibideen berri emateko.

- (38) a) {Erraz/azkar} egin du lana.

- b) *Erraz {egon/ibili} da lana egiteko.
- c) Lana benetan zaila zen baina Mirenek oso erraz egin du.
- d) Azkar ibili da lana egiteko.
- e) Astiro aritu da baina lana azkar bukatu du.

Begira diezaiegun berriro ere hiztegiei azken zati honetan aipaturiko sarrerei egotzi dizkieten kategoriak aztertze (39 eskema) ⁽²²⁾. *3000 Hiztegia* da nire hausnarketatik ateratako ondorioetatik hurbilen ibili dena: *erraz* eta *azkar* sarreretan ez ezik, *eroso* eta *bikain* sarreretan baino ez du *adond*. zehaztapena gaineratu. Bi hauetan *adond*. kendu beharko litzateke nire iritziz apalean. Bestetik, *zuzen* eta *oker* sarreretan, *zuzen egon* eta *oker egin* predikatu-erabilera bereziak zehaztu ditu, erabiltzaileei oso lagungarriak gerta dakizkiekeenak. *El-huyar Hiztegian azkar* sarrerari *adb.* kategoria gaineratu beharko litzaioke eta kendu beharko litzaike, *apal*, *eroso*, *makur*, *garbi*, *argi*, *oker*, *bikain* eta *zintzo* sarrerei. Azkenik, Sarasolaren hiztegian *erraz* eta *azkar* sarreretan *adlg.* → *adb.* aldaketa egin beharko litzateke nire hausnarketaren arabera. Gainerako sarre-retatik nire iritziz *adlg.* zehaztapena kendu beharko litzatekeelarik, egokiagoa litzateke, *oker* sarreran bezala, *oker egin*, *oker egon* eta *oker ibili* bezalako predikatu-erabilera berezien adibide argigarriak ematea.

(39)	EGE	3.000 Hiztegia	SEH
alfer	izond.	izond.	izond...adlg.
apal	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
eroso	izond...adb.	izond...adond.	izond...adlg.
makur	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
garbi	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
argi	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
zuzen	izond... correctamente	izond./ zuzen egon	izond...adlg.
oker	izond...adb.	izond./ oker egin	izond...oker egin; oker egon; oker ibili
zorrotz	izond... rigurosamente	izond.	izond...adizlg. gisa
bikain	izond...adlg.	izond...adond.	izond...adlg.
zintzo	izond...adb.	izond.	izond...adlg. gisa
erraz	izond...adb.	izond...adond.	izond...adlg.
azkar	izond... rápidamente	izond...adond.	izond...adlg.

(22) Garbi dago (39) eskemako zenbait hitzek *iz.* kategoria ere badutela baina atal honetan, aztertzen ari gareen mugarekin zerikusia duten kategoriak baizik ez ditugu sartu eskeman, azalpena ez korapilatzearen.

7. ONDORIOAK

Lan honetan, EGLU gramatikan kategoriak eta azpikategoriak mugatzeko orduan erabiliriko irizpideek eta terminologiak hiztegien sarrerak antolatze-ko eta definitzeko orduan izan dituzten zenbait ondorio aztertu ditut eta hitzen sintaxi-jokaeraren berri argigarriagoa izan litekeen banaketa eta terminologia proposatzen ausartu naiz. Hona hemen ondorioak aipagarrienak:

a) ‘Aditz izena’ ez da kategoria bat, aditz kategoriako hiztegi-sarrera guztiek duten morfologia-aldaera baizik. Aditz izen morfologia-aldaera hori, partizipioa eta aditz-erroa bezala, aditz kategoriako hiztegi-sarreretan ageri da zehazturik. Hortaz, hiztegian ez litzateke agertu behar *apurtze* edo *irabazte* bezalako hiztegi-sarrerarik, izen erabilerarik ez baitute. *Jaiste* aldiz, *iz.* kategoriako hiztegi-sarrera da *jaitsiera* eta *apurketa* bezala. Azkenik, *irabazi* hitzak bi kategoria ditu eta beraz, hiztegian *ad.* eta *iz.* kategoriak zehaztu behar dira. Hona hemen nire proposamena.

(40)

apurtu	apur edo apurtu , apurtzen da/du <i>ad.</i>
apurketa	<i>iz.</i> : Harremanen apurketa.
jaitsi	jaits , jaisten da <i>ad.</i>
jaiste	<i>iz.</i> : Nola agitu zen Espiritu Santuaren jaiste hura?
jaitsiera	<i>iz.</i> : Jaitsiera gogorragoa gertatu zen igoera baino.
irabazi	irabaz , irabazten du <i>ad.</i> .. <i>iz.</i> : Irabazi handiak atera dituzte.

b) ‘Adizlagun’ eta ‘izenlagun’ terminoek ez dute gramatika-kategoriarik adierazten gramatika-funtzioak baizik. Izen horren bidez adieraz daitezkeenak, ‘postposizio-sintagmak’ dira kategoriaz eta beraz, sintaxi-egitura konplexuak dira hiztegitan agertu behar ez dutenak.

c) Edonola, badira jatorriz postposizio-sintagmak izanik ere, lexikalizatu diren segidak, hiztegitan *postp.* edo *adb.* kategoriarekin zehazturik joan behar harko luketenak. Esate baterako, *buruz* hiztegi-sarrerak *postp.* kategoria eraman behar harko luke *lanari buruz* bezalako segidetan dugunaren berri emateko eta *erruz* hiztegi-sarrerak *adb.* kategoria *dirua erruz irabazi* dute segidan duguna islatzeko. *Lana buruz ikasi* bezalakoetan *buruz* hori analizatzeko bi modu ditugula ikusi dugu: batetik, *buru* izenaren erabilera berezitat har genezake eta beraz, sarrera horren barruan sartuko genuke gehienez ere edo *buru +z* segidak nolabaiteko lexikalizazioa jasan duela uler genezake eta orduan, *adb.* katego-

riako *buruz* hiztegi-sarrera gaineratuko genuke. Lan honetan, lehen aukeraren alde egin dut, *erruz* sarrerarekin erkatu dudanean.

d) Euskaraz, atzizkiak diren *-n*, *-tik*, *-ra*, *-ko* eta abar bezalako postposizioez gain, baditugu beregainak diren postposizioak ere, *buruz* eta *zehar* bezalakoak alegia. Hiztegietan hiztegi-sarrerak izan beharko lukete eta bereziki laguntzen duen sintagmak ezinbestean hartu behar duen postposizio-atzizkiaren berri eman beharko lukete hiztegi horiek. Hau da, erabiltzaileak garbi eduki behar du *buruz* eta *zehar* postposizioak direla eta hurrenez hurren datiboa eta inesiboa edo elatiboa eskatzen dutela.

(41)	atzo	<i>adb.</i> : Atzo etorri ziren.
	ondo	<i>adb.</i> : Lana oso ondo egin dute.
	zehar	<i>postp.</i> (-an, -tik zehar) Parkean zehar dabil. <i>adj.</i> : Begi zehar bat zuen. <i>iz.</i> : Zeharreko mina du.
	buruz	<i>postp.</i> (-ri buruz) Lanari buruz mintzatu dira.
	buru	<i>iz.</i> ... Lana buruz ikasi.
	erruz	<i>adb.</i> : Dirua erruz irabazi dute.

e) Agerian utzi dut 'izenondoak' eta 'izenlagunak' 'adjektibo' ginkategorian biltzeak eta 'adizlagunak' eta 'aditzondoak' 'adverbio' ginkategorian biltzeak ez duela zentzu handirik funtzioak eta kategoriak elkarrekin jartzen baititu sailkapen horrek eta bestetik, 'adjektibo' eta 'adverbio' nazioarteko terminoak beste hizkuntzetan ez bezala erabiltzen baititu. Sailkapen hau nahasgarria da eta froga modura aurkeztu dut urte berean argitaraturiko hiru hiztegitan hiztegi-sarrera bererako kategoria bana agertzea: *adj.*, *izond.*, *izlg.* / *adb.*, *adond.*, *adlg.*

f) Bereziki nahasgarria da *izlg.* eta *izond.* bereizteko EGLU gramatikak erabiltzen duen irizpidea, alegia, izenarekiko kokagunea. Izan ere, irizpide horrek zehaztu gabe uzten du *europar* eta *dirudun* bezalako kategoria. Hiztegi-sarrerak diren eta izena lagun dezaketan edota izenki-predikatuak era ditza keten kategoria guztietarako *adj.* etiketa erabiltzea proposatu dut. Izenaren eskuinean baizik ezin joan daitezkeen hiztegi-sarretan (*handi*, *beldurgarri*...) *adj.* *izond.* (adjektibo izenondo) zehaztapena egin liteke eta predikatuak baizik ezin era ditza keten *sendakizun* bezalako hiztegi-sarretetan, jokaera berezi honen berri eman liteke, *adj. pred.* (adjektibo predikatu) zehaztapena eginez. *Europar*

bezalako adjektiboetan erreferentziakoak direla ere gainera liteke⁽²³⁾. Azkenik, *oinarrizko* bezalakoei bi modutara begira dakieke: hiztegi-sarreratzat hartuz gero, *adj.* kategoriakoak lirateke baina postposizio-sintagmatzat ere har litezke eta orduan, ez lirateke hiztegi-sarrerak, barruan daramaten hitzaren sarreraren barruan agertuko lirateke.

(42)	handi	<i>adj. (izondo.)</i>
	beldurgarri	<i>adj. (izond.)</i>
	sendakizun	<i>adj. (pred.)</i>
	europar	<i>adj. (erref.)</i>
	dirudun	<i>adj.</i>
	EDO (oinarrizko) EDO (oinarri)	<i>adj.</i> <i>iz... oinarrizko: Oinarrizko</i> baliaabideak)

g) 'Adjektibo' termino nazioartekoa berreskuratzeko eta 'izenondo' terminoari esangura berezia emateko egin berri dudan proposamenak, zentzu handirik gabe uzten du 'adberbio'/'aditzondo' bikotea mantentzea. Horietako bat hautatu beharko litzatekeela aldarrikatu dut eta 'adberbio' nazioarteko terminoaren alde egin dut aditza laguntzen duten 'adberbioez' gain perpaus osoari dagozkion 'perpaus-adberbioak', adjektiboa edota beste adberbio batzuk laguntzen duten adberbioak eta 'adberbio predikatuak' ere badirelako.

h) Ezinbestekotzat ez izateagatik adjunktutzat hartzen ditugun eta numero-aldaketarik azaltzen ez duten osagaiak, ezinbestean 'adberbiotzat' hartu behar ez direla ikusi dugu. Adberbioek aditza laguntzeaz gain, predikatuak era ditzakete (*Miren hala da*). Adjektiboek aldiz, izena lagun dezakete edo predikatuak era ditzakete baina ezin lagun dezakete aditza. Gainera, badira predikatuak baizik ezin era ditzaketen adjektiboak⁽²⁴⁾.

(23) Azpimarratu beharrekoa da parentesi artean jarri ditudan zehaztapenak ez direla maila berekoak. *Izond.* zehaztapenak hitz-hurrenkerarekin zerikusia du, *pred.* zehaztapenak, sintaxi-funtzioarekin eta *erref.* delakoak, adjektiboan artean semantikaren ikuspuntutik bereiz daitezkeen azpitaldeekin.

(24) Euskaraz adjektiboek ezin eman dezakete argumenturik baina beste hizkuntza batzuetan bai. Esate baterako, gaztelaniazko *visita presidencial* edo *explotación maderera* segidetan adierazten duguna da presidenteak bisita bat egin duela eta nonbait egurra ustiatzen dela. Hortaz, *presidencial* eta *maderera* erreferentziako adjektiboak argumentutzat hartu ohi dira. Euskaraz, honelakoak *-ren* daraman postposizio-sintagma baten bidez edo izen elkartu baten bidez adierazten ditugu (*Lehendakariaren bisita; egur-ustiapena*). Ikus Zabala (1997, 1999).

(43)

	argumentuak	iz.-modif.	pred.	ad.- modif.	mug. gabe
iz.	+	-	+	-	artzain joan
adj.	-	+	+	-	lasai egon
adj. pred.	-	-	+	-	eginkizun izan
adb.	-	-	+	+	ondo/erraz egin

Hortaz, batzuetan adberbiotzat hartzen diren zenbait hiztegi-sarrerara, adjektiboen predikatu moduko erabilerari dagozkiola ikusi dugu esate baterako, *alfer bizi*, *apal etorri* edo *jator jokatu* horietan duguna adjektiboen predikatu moduko erabilerara da eta ez adberbioak. Argi eta garbi aditza laguntzen duten osagaiak eraten dituztenak aldiz, adberbiotzat hartu ditut; esate baterako, *erraz egin* segidan *erraz* adberbiotzat hartu dut. Edonola, inolako atzizkirik gabe adberbioak eman ahal izate hau salbuespena da araua baino gehiago, \emptyset atzizkiaren bidezko edozein eratorpenetatik espero daitekeen bezala⁽²⁵⁾. (44) eskeman, zalantzarriak izan daitezkeen zenbait hiztegi-sarreraren kategoria zehazteko proposamena ikus daiteke.

(44)

artzain	<i>iz.</i> ...Predikatu gisa: artzain joan.
zahar	<i>adj. (izond.):</i> gizon zaharra... Pred. gisa: zaharra da/ zahar da; zahar dago.
lasai	<i>adj. (izond.):</i> gizon lasaia... Pred. gisa: lasaia da/ lasai da; lasai dago.
eginkizun	<i>iz.:</i> eginkizuna bete ... <i>adj. (pred.):</i> eginkizun da/ ?? eginkizun dago.
sendakizun	<i>adj. (pred.):</i> gaixotasun hori sendakizun da.
isil	<i>adj. (izond.):</i> gizon isila... Pred. gisa: isila da/ ? isil da; isilik dago.
poz	<i>iz.:</i> hau poza! // Aditz-esapideak: poz hartu; poz eman... Pred. gisa: poz da; poz dago; pozik dago; pozak dago.

(25) Eratorpen-atzizkiek ez dute % 100eko emankortasuna eta are gutxiago \emptyset atzizkiak, normalean oso emankortasun txikia izan ohi duena. Harrigarria litzateke, hortaz, euskaraz edozein adjektibok \emptyset atzizkiaren bidez adberbio bat eman ahal izatea.

biluzi	<i>adj. (izond.):</i> gizon biluzi bat... Pred. gisa: biluzi dago; biluz dago; biluzik dago; ? biluzi/biluz/biluzik da.
argi	<i>iz.:</i> argi bizia... <i>adj. (izond.):</i> gizon argia... Pred. gisa: argia da/ argi dago/ argi ibili; argi jokatu.
zuzen	<i>adj. (izond.):</i> bide zuzena... Pred. gisa: zuzena da/ zuzen da; zuzen dago/ zuzen jokatu... <i>iz.:</i> bakea eta zuzena...
zorrotz	<i>adj. (izond.):</i> Aizkorra zorrotza... Pred. gisa: zorrotza da/ zorrotz jokatu, bete...
erraz	<i>adj. (izond.):</i> Ariketa erraza... Pred. gisa: erraza da; <i>adb.:</i> erraz egin du.
azkar	<i>adj. (izond.):</i> gizon azkarra... Pred. gisa: azkarra da; <i>adb.:</i> azkar bukatu du.
txarto	<i>adb.:</i> txarto hasi gara... (Pred. gisa: txarto dago).

BIBLIOGRAFIA

- ARTIAGOITIA, X. (1990): *A Unified Approach to Relativization in Basque*. Master's thesis University of Washington.
- ARTIAGOITIA, X. (1992): "Why Basque doesn't Relativize Everything". Joseba Lakarra eta Jon Ortiz de Urbina (ed.). *Syntactic Theory and Basque Linguistics*. ASJUren Gehigarriak: 11-35.
- ARTIAGOITIA, X. (1994): "Verbal Projections in Basque and Minimal Structure". *ASJU* 1994 (2).
- ARTIAGOITIA, X. (1997): "DP predicates in Basque". *Working Papers in Linguistics*. University of Washington. 5. lib. 1997: 161-198.
- ARTIAGOITIA, X. (1998): "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan". *Uztaro* 27.
- BOSQUE, I. (1989): *Las categorías gramaticales*. Síntesis. Madrid.
- BOSTAK BAT (1996): *Hiru Mila Hiztegia*. *Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara*. Adorez. Bilbao, 1996.
- EGUZKITZA, A. (1993): "Adnominals in the Grammar of Basque". José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (ed.). *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins. Amsterdam 163-188.

- EGUZKITZA, A. (1997): "Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobi-dea". *Hizpide*, 40zbk.: 39-52.
- ELHUYAR (1996): *Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara Hiztegia*. Usurbil.
- EUSKALTZAINDIA (1985): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I (EGLU-I)*. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II (EGLU-II)*. Bilbao.
- EUSKALTZAINDIA (1993): *Gramatika laburra*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1998): "Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma". *Arauk* (85. araua).
- HERNANZ, M.LI. eta BRUCART, J.M.^a (1987): *La sintaxis. I. Principios teóricos. La oración simple*. Editorial Crítica. Barcelona.
- MITXELENA, K. (1986): "Eratorbidea eta deklinabidea". *Euskera* 1986 (2): 535-543.
- ODRIOZOLA, J.C. (1999): "Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika-kategoriak". *Euskera* (liburuki honetan).
- SARASOLA, I. (1996): *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa. Donostia.
- ZABALA, I. (1993): *Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean: euskararen kasua*. EHUko doktoretza-tesia (argitaratu gabea).
- ZABALA, I. (1995): "Infinitivos, tiempo y ergatividad". *Quinto Coloquio de Gramática Generativa*, Coruña, abril 1995 (eskuizkribua).
- ZABALA, I. (1997): "Argumentu-harremana/ eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila". *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*. UZEI-IVAP.
- ZABALA, I. (1999): "Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak". J.C. Odriozola (ed.). *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ZABALA, I. eta ODRIEZOLA, J.C. (1994): "Adjektiboen eta adberbioen arteko muga zehatzik eza". *ASJU*, XXVIII-2. 1994: 525-541.
- ZABALA, I. eta ODRIEZOLA, J.C. (1996): "On the Relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals". *Catalan Working Papers in Linguistics*. 5/2, 1996: 231-281.